

IRITZIA
Ane Guill'o

ERREPORTAIA
Josu Merino
Patagoniatik
bueltan

UDALETXETIK

BERBETAN

KIROLA

GAZTAROA

BARREN

1997ko apirilaren 4a
V. urtea - 189 zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Josu Merino
Patagonian

“Mendian ezin da
negarrik egin”

“Mundua, berau konkistatzeko jaino denarena da, ez konkista dezakeela amets egiten duenarena” F. Pessoa



OSASUNDEGIA

Urkizu pasealekua, 11.
(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).

Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

EIBAR

- 1- Alergologia
- 2- Kardiologia
- 3- Zirugia
- 4- Dermatologia
- 5- Dietetika eta Nutrizioa
- 6- Foniatria
- 7- Ginekologia
- 8- Laborategia


- 9- Barne medizina
- 10- Ortodontzia
- 11- Otorrinolaringologia
- 12- Pediatria
- 13- Psikiatria
- 14- Radiologia
- 15- Traumatologia
- 16- Urologia

MODAKO

UZURI
OPTIKA

© MultiOpticas


ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba.



F. NARVAEZ "KINO"

GAZTE TXARTELA baduzu
edo
MORKAIKO M. E. ko bazkide

SAN FRANTZISKO , 21 LEHIAZ EIBAR ☎ TEL: 74



ANE GUILLÓ

Denbora

Denbora da gizakiak menperatu ezin duen gauza bakarretako bat. Historian zehar, inguratzen gaituen ia oro gure esku egotea lortu dugu. Bizitza erosoago bategatik, ehizatzeari utzi eta animaliak hezi ditugu. Gure ortu eta negutegietan, berriz, mota guztietako landareak hazten dira urte guztian zehar. Asfaltozko sugetzarrak eraiki ditugu lehengo mendibide estuen lekuan eta hegorik ez dugunez, hegazkinez egiten dugu hegan. Gizakiaren botere-goseaz oharzteko hauek eta beste ha- maika adibide gutxi bala- ra, orain hain modan dagoen injinerutza ge- netikoaren alorrean egindako aurrerapenei begirada bat ematea besterik ez dago.

Hala ere, denboraren aurkako borrokan ezer gutxi egin dezakete aur- pegiko zimurrentzako krema miresgarriek. Denborak eskuetatik irrist egiten digu bere zurrunbiloan galtze- ra derrigortuz. Nik dakidala behintzat, inork ez du denboraren makinari- k asmatu eta ondorioz, denboran atzera egitea uto- pia hutsa da... oraindik. Jaiotzen garen momentutik heriotzera kondenaturik gau- de. Hori da nire iritziz denboraren garai- pen zeinurik argiena.

Zoritxarrez, jende askori entzun izan diot denboran atzera egin nahiko zukeela. Egund hartan hau edo hori egin izan banu, beste norabait joan izan banintz... Nire us- tez, ordea, ez dago egin ez denaz damu- tzea baino ezer alferrikakoagorik. Gaizki egindakoetatik, sikiera, zerbait ikas baite- zakegu eta hurrengoan gauzak hobeto egi- ten saiatu. Baina iragandako garaiak ira- gan ziren eta egin gabeko gauzek ez dau- kate bueltarik.

Hori dela eta, atseginez bizi ditzagun aurrean ditugun une guztiak. Aprobetza de- zagun hilabete bakoitza, hilabete horretako aste bakoitza, aste horretako egun bakoitza eta egun horretako segundo ba- koitza. Zorionez edo zo- ritxarrez, oraindik ez baitugu denboran zehar bidaiatzeko makinari- k asmatu eta guk denbora

“Aprobetza dezagun hilabete bakoitza, hilabete horretako aste bakoitza, aste horretako egun bakoitza eta egun horretako segundo bakoitza.”

kontrolatu beharrean, denbora baita gu eramaten gaituena. Hala ere, egin gabeko gauzengatik damutzen denbora galtzeari utzi eta erraza ez bada ere, daukagunare- kin zoriontsu izaten saiatu behar dugu; kontuan izanik, noski, gehiegi saiatzeak ez dakarkigula zoriontasun handiagorik. Ho- rrela, denboraren menpe egon arren, gu ere irabazle aterako gara eta.

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Arrigorrigoikoerrotaberritarrek agur esan digute. Beraz, aste honetan komiki tira berri bati ekin diogu. Ea hau ere zuen gustokoa den.



Antzina, Euskal Herrian, jentilek anitz jainko gurtzen zituzten.



Baina Kixmi jainko bakarraren etorrerak...



...harri ikaragarrien azpian ezkutatzera bultzatu zituen.



Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEAK

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrutxaga,

Anton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi,

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



AEK euskaltegiak eta Korrikak eskerrak elgoibartarrei

Euskararen aldeko karrera erral-
doiak, hau da, Korrikak bere 10.
edizioan ere elgoibartarrendik
jaso duen harrera ezin hobea eskertu
nahi dugu.

Harrera hau honako modu eta
momentuetan erakutsi dute elgoi-
bartarrek:

1- Lasterketa momentuan ber-
tan, batzuek saltaka eginez eta beste
batzuek, horren ezinean txaloak joz.

2- Herriko ikastetxe, elkarte,
sindikatu etab.ek kilometroa erosita.

3- Denda, enpresa, taberna eta
bestelako negozioek euren aportazio
ekonomikoa eginda.

4- Kamiseta, praka, azukre, pa-
txarana etab. erosiz.

5- Kuestazioan bakoitzak bere
aportazioa eginez.

6- Tonbolako boletoak salduz
eta erosiz, zein horretarako sariak
emanez.

7- Antolatutako ekitaldi kultura-
letan parte hartuz.

8- Propaganda jartzen lagunduz.

Era batean edo bestean euren la-
guntza eskaini duten hauek guztiak
eskertzeaz gain, bereziki gure esker
ona honako hauentzat ere:

Ongarri Zine Kluba, Soarte eta
Ostarku argazki dendak, Haritz
dantza taldea, Trikitilari Eskola,
Lanbroa kafetegia, Udaltzaingoa eta
AEK euskaltegiko ikasleak, euren
laguntzarik ezean ezin izango bai-
tzen antolatu Korrika behar bezala.

AEK euskaltegiak dei egiten die
hauei guztiei aurrerantzean ere el-
karlanean jarraitzeko, euskararen
berreskurapenak denon beharra bai-
tu

AEK euskaltegia

Arrazakeriaren antzerkia

Martxoaren 22an Elgoibarko
Gazteen Gurutze Gorriak an-
tzerki bat antolatu zuen arrazakeria-
ren aurkako eguna zela eta. Gutun
hau lagundu ziguten guztiei esker-
tzeko idazten dut. Egun zoragarria
igaro genuen denok zuei esker.

Hauek dira eskertu nahi nituzke-
enak:

- Miguel eta Robertori eskerrak
musika eta soinuarekin eskaini zigu-
ten laguntzarengatik.

- Ameliari antolakuntzan egin
zuen lanarengatik.

- Pitu, Isa, Montaña, Xabier,
Maite, Goranne eta Soniari zuen ur-
te osoko lanarengatik.

- Bernardo Ezenarro Institutuari
eskainitako laguntzarengatik.

- Etorri zineten guztioi.

Hauek guztiak beren laguntza
ezertxo ere ez kobratu gabe eskaini
zuten.


Azkenik, ez nuke bukatzerik
nahi besarkada sendo bat bidali ga-
be une garratzak igarotzen ari den
Xabierri. Animo mutil, zurekin gau-
de eta!

Mikel Lizarralde Pikaza
Gurutze Gorriko
Gazteen Zuzendaria

GALDERAK

◆ Herritar batek honako galdera hau luzatu nahi dio Udalarari: **“Matadero zaharrean Udalak jarritako autoen garbiketarako zerbitzu munizipala estropeatuta dago duela hilabete asko. Konpontzeko asmorik ba al dago? Noizko egongo da berriro martxan?”**

Gillermo Garate alkateari galdetu diogu gai honen inguruko zerbait dagoen jakiteko eta berak esan digunez “konpontzeko agindua emanda dago. Egun hauek nahiko txarrak izan dira tartean oporrak egon direlako baina laster batean berriro martxan egongo da”.



KEXAK

◆ Herritar batek honako hau esateko deitu digu: **“Plaza Handia gure herrian dagoen txokorik politenetakoa izanik, edifizioen estetikan berdintasuna gordetzea merezi duen iritzikoa naiz. Hau esaten dut, ireki berri duten bidaia agentziaren aurrealde guztia zuriz pintatu dutelako. Benetan ez doa batera ondo edifizioaren eta inguruaren itxurarekin”.**

◆ Urasandi kaleko 20an bizi den **Matilde del Campok Bernardo Ecenarroko pinturen kamioia gidatzen duenari** kexa bat zuzendu nahi dio: “etxe aurrean, kurbaren erdian eta espaloia gainean kamioia aparkatzea oso gaizki iruditzen zait. Honez gain, desorduetan (gauean eta goizeko 7etarako) motorra martxan egoten da (askotan 5 minututik gora piztuta edukitzen du) eta eskapeko ke guztia etxera sartzen zaigu. Askok eskatzea al da kamioia goiko plazan aparkatzea gainontzeko garraiolariek bezala?”.

BAI, ESAN?



Mariano Irigoien
Eroski Bidaiak-ekoa

Aste Santuko oporrak amaitu dira askorentzat. Beste batzuek zorte handiagoa dute eta oraindik egun batzuk falta zaizkie lanera edo ikasketetara bueltatzeko. Hala ere, oporrak igarotzeko zein leku nahi izaten ditugun jakin nahian hiru galdera luzatu dizkiogu **Eroski Bidaiakeko Mariano Irigoieni**.

- **Zein izan da Aste Santuko oporrak pasatzeko lekurik aukeratuena? Sekula baino jende gehiago irten al da aurten oporretan?** - Hondartzara joateko joera izan da aurten nagusi. Gehien aukeratu diren lekuak ere aipatuko ditut: Canarias, Levanteko kostaldea, Palma eta Salou. Jendeak eguzkia bilatzen du sasoi honetan eta aurten Aste Santuko oporrak zertxobait lehenago izan direnez (martxoan), horrek ere izan du eraginik aukeraketan. Aurten beste urte batzuetan baino jende gehiago atera dela oporretan nabaritu dugu gure Agentzian. Hau horrela izan da eguraldia faktore erabakiorra delako.

- **Leku batera edo bestera joatea diruaren arabera al dago?** - Sasoi honetako oporretan prezioak oinarritzko baldintza izaten dira. Lehen oporretara joateko aukerarik ez zuen jendea orain oporretara ateratzen dela da horren adibide argiena (ikasleak, ume txikiak dituzten familiak inguruko lekuetara...). Pazko Astean 4 eguneko baztaz-bestekeko prezioa 8.000 pta.tik hasita 17.500 pta. bitartekoa izan da pentsio osoan.

- **Oporrak igarotzeko modua aldatu egin al da azken urteotan?** - Oporrak ikaragarri “popularizatu” direla esango nuke eta oporrak beste era batera pasatzeko aukerak agertu dira: nekazal turismoa, gertuko oporlekuak (Landak, Cantabria...) eta zirkuitu kulturalak. Azken hauek goraka doaz.



1996ko martxoaren 28an, 56 urte zituela hil zen **BENITO JUARISTI URANGA**ren omenez **ERROSARIO SANTUA** ospatuko da Parrokian, apirilak 5ean, larunbata, arratsaldeko 7etan.
Joango zaretanoi eskerrak, alde z aurretik.



Abentura ederra bezain beldurgarria

Argentinako Patagonian izan da. Bi hilabete eman ditu bertan. 25 urteko elgoibartar honek Cerro Torre mendiko mendebaldeko aurpegia izotzean eskalatu du. Mundu osoan beste bi bakarrik iritsi dira gailurrera "Ferrari bia" hartuta, eta 1991. urtetik hona lehenak izan dira Josu Merino eta bere laguna, Simon Elias, Errioxa-koa. Gosea, haize bolada beldurgarriak, izotzezko haitzulo batean 25 egun, bakardadea... Abentura ederra bezain beldurgarria bizi izan du bi hilabetez. Eta gure artera etorri da gutzia kontatzera.

– **Indarra, elastizitatea...**

- Eta burua. Eskalatzeko gauza garrantzitsuena burua da, gero elastizitatea litzateke eta gainontzekoa indarra.

– **Burua?**

– Mentalki egon behar duzu prestatua. Norberak daki noraino iristeko gai den. Buruari kasu egin eta sinestu egin behar duzu ahal duzula. Zalantzarik txikienarekin, jai dago.

– **Bi hilabete pasa dituzu Argentinan, Patagonian. Zer egin duzue?**

- Lehenengo Stangart mendiko "Tomahawk bia" egin genuen, ekialdeko aurpegitik. Izotza eta harkaitz gaineko eskalada izan zen. Hasierako fasean hori egin eta gero, Cerro Torreko mendebaldeko aurpegia egiteari ekin genion, Ferrari biatik. Eta hor hasi zen benetako abentura.

– **Haizea izugarria zen, ez?**

- Bai. Han zegoen haizea inoiz ez


dut ezagutu. Hemen ziur alerta gorrian jarriko ginatkeela hango haizea balego. Haizea kolpera geratzen bazen, lurrera erortzen ginen kontra egiteko erabiltzen genuen indarrak bultzatuta.

– **Zuek egindako izotzezko haitzulo batean bizi izan zineten.**

- Bai, bi haitzulo desberdinetan. Horietako bat zulo bat zen, luzeran 2 m. eta altueran metro 1 neurtzen zue-na. Hiru egun bertatik atera gabe egon ginen, kanpoan eguraldi oso txarra zegoen eta: haizea, elurra, izotza...

– **Eta nola bizi daiteke horrela?**

- Bahitua sentitzen zara baina, azken finean, zuk hala nahi izan duzula-ko zaude hor neurri batean. Nahiz eta behin baino gehiagotan burutik pasatu zer demonio egiten duzun egoera horretan. Dena dela, hobe geunden kobazuloan kanpoan baino.



Argazkian Josu Merino. Bera eta Simon Elias errioxarra izotzezko haitzulo batean bizi izan ziren.

- Hiru egun atera gabe.

- Denbora osoa zaku barruan sartuta, ezin ginen tente ipini, hotzez, janariarekin ere arazoak...

- Janari falta?

- Bai, kalkulaturik eraman genuen baina zoritxarrez eguraldiak txarrera egin eta atera ezinik izan ginen. Hiru egunez, gosaltzeko te piskat eta afaltzeko "Magi" zopa horietako sobre bat geneukan bi pertsonarentzat. Zopa mastikatatu egiten genuen, ahalik eta gehien irauteko.

- Denbora luze egiten al da?

- Eternitate bat.. Baina argi geneukan kobazulotik aterako bagina arrisku handia zegoela, beraz... Egun horietan 1.000 orrialdeko liburu bat irakurri nuen, Stephen King-en "It".

- Bakardadea ez al da igartzen?

- Askok. Han idatzi nituen eskutitzak bereziak izan ziren. Beharbada norbaitek zoraturik nengoela pentsatuko luke baina bakardade hartan zure ingurukoekin egon nahi duzunean, eskutitzak

idatzi eta horietan isladatzen dituzu ametsak.

- Negarririk egin al duzu?

- Ez, pribilegio bat da. Burua hotza izan behar da, ezin duzu sentimendurik izan bestela lurjota geratzen zara.

- Egunkari bat idatzi omen zenuen.

- Bai, ohitura daukat. Unean uneko sententzioak, bizipenak eta burutazioak apuntatzea gustatzen zait. Gainera, bueltatzean gauza asko ahaztu egiten zaizkizu, baita momentu txarrak ere, eta ona da idatzitako apunteak izatea, guztia gogoratzeko.

- 25 egun izotzean eta bi egun gailurrera iristen.

- Bai, bi egun eta 28 ordu. Lehenengo egunean 7 ordu egin genituen, 4 orduz atsedena hartu eta bigarren egunean gailurra egin eta behera jaitsi beste 22 ordutan. 1.700 m.ko desnibela zuen aurpegi hark eta izotza ezeziki, haizeak ekarritako elurra ere itsastan zen harkaitzera, elur txarra. Lehenengo egunean gauez atera ginen, frontalekin argizatuz, nahiz eta elurrak ere dexente argi botatzen zuten. Hurrengoan, berriz, eguraldiak hobera egin zenez, aprobetxatu eta gorantz jarraitu genuen. Eguzkiak bete-betean jotzen zuen eta elurrarekin kontrastea egiterakoan, azala erre egiten zitzaizun. Bazirudien metxero bat zenuela azalaren gainean jarrita.

- Halere, eguzkia oso gutxi ikusi zenuten.

- Bi hilabetetan 5 aldiz. Eta horietan ezin daiteke sinestu nola erre ginen! Izotzak berak ere erre egiten du, ezpainetako azala jasotzen dizu. Haizeak eta hotzak, berriz, bizarra eta bekainak izozten dizkizu.

- Itxura ederra!

- Ikusgarria! Batetik gutxi jan eta pisua galdu. Bestetik bizarririk kendu gabe, apenas garbitu gabe, izotza, erreta...

- Ez duzu itxura txarra.

- Jaitsi ginenean 5 egun pasa genituen jan eta jan, galdutako guztia berreskuratuzko.

- Sokarrik gabe ibili zinteten.

- Bai. Sokak igotzeak as-



koz denbora gehiago suposatzen du eta ez geneukan astirik, eguraldiak ez zizun bat ere lagundu eta. Arriskua handiagoa da sokarrik gabe, eroriz gero ez daukazu helduko dizun ezer eta behera zoaz baina...

- Joan aurretik prestakuntza berezirik egin al zenuen?


- Batez ere fondoa landu nuen. Astean lauzpabost aldiz Karakatera igotzen nintzen erritmo bizkorrean eta handik Hirukurutzetara korrika joan eta Upaigoitxitik San Lorentzora jaitsen nintzen, korrika hori ere.

- Merez al du?

- Orain hasiko naiz disfrutatzen. Oraindik sufritu dudana gehiegi gogoratzen dut baina hemendik aurrera hasiko da satisfazioa. Halere, eskalatzea asko gustatzen zait. Eskalada da gehien atsegin dudana nahiz eta noizean behin eskapada batzuk egin lagunekin parranda ederrak botatzeko. Bakardadea eta isiltasunean horrenbeste denbora bizi eta gero, lagunartean, jende artean egotea zaila egiten zait. Ohituko naiz.

- Zer erakutsi dizu esperientzia berri honek?

- Batez ere, nahi baduzu ahal duzula. Buruak duen botereaz jabetu naiz. Gainera, sekula egin dudana lanik handiena egin dut han izan naizen hilabeteetan, ezer egin gabe eta bakardadeaz disfrutatzen ikasi. Horrez gain hemen daukagun guztia baloratzen ikasi dut. Goseak, hotzak eta bakardadeak asko irakasten dute. Bukatzeko, txoznetan lanean aritu zirenei eta kamisetak saltzen lagundu zigutenei eskerrak eman nahi dizkiet, euren laguntzarik gabe ezinezko izango zelako amets hau burutzea.




Josu eta Simon munduko 3.ak izan dira Cerro Torre-ren gailurrera "Ferrari bia" eskalaturit iritsi direnak

Non ibili zara Aste Santuan?



IÑAKI OVEJERO
14 urte, ikaslea

Aitaren herrian izan naiz lau egun, Villaframielen, Palencian. Ia urtero juten gera. Gustura juten naiz ze hola Elgoibartik urtetzen naiz.



FRANCISCO JAVIER BARRASA
16 urte, ikaslea

Elgoibarren geratu naiz, etxean batzuetan eta lagunekin kalean beste batzuetan. Ez zait gehiegi gustatzen inora joatea, edozein tokitan pasatzen dut ondo.



ANA M. RUIZ
16 urte, ikaslea

Egun batian Burgosera jun nitzan eta bestiak Elgoibarren pasatu ditzut ze ondiok ez die lagatzen lagunekin kanpinian juten.



MARIASUN JUARISTI
35 urte, irakaslea

Elgoibarren egon naiz. Egunaldi oso ona ein dau eta primeran ibili gera inguruetan. Lehen oportetan juten ginan baina oin ume txikixa dakau eta ezin da.



MARTINA OSA
48 urte, etxeakoandrea

Mutrikun egon naiz, etxia dakagu eta. Udan ere Mutrikura juten gera eta oso ondo pasatzen dogu, batez ere egualdi ona itxen dabanian.



IÑIGO LEIARISTI
33 urte, trokelista

Ez, ze lanian egon naiz. Oin nao oportetan baina ez nixe inora, egun gitxi dia eta. Udan ahal baldin bada gustatzen jata urtetzia.

**HERRI-
GAIN**
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR



ION

- LARRUA
- ANTEA
- NAPA

Orain **Gizon eta emakumeentzako moda**

San Bartolome, 37
ELGOIBAR

ISPILUA- BERI DEGIRA



VICTOR MANUEL
USATORRE

USATORRE
tabernakoa

- **Herritik zertxobait urruti, ezta?**
 - Bueno... pixkat bakarrik.
 - **Errepide ondoan egonda ez al da tentagarria ihes egiteko?** - Sekula ez dot pentsatu baina, oin esaten dozula... munduari buelta ematera jungo nintzake.
 - **Tabernak dira gaurko gazteen topagune.**
 - Ez jata ondo beixantzen baina uste dot momentu honetan ez dakela beste alternatibarik.
 - **Sukaldea ala barra atzea?**
 - Barra atzia ze, lan gitxio dau eta errezaua da.
 - **Tabernari ez bazina, zer izan nahi zenuke?**
 - Elektrizista ikasi nuan baina beti izan naiz tabernari.
 - **Edaririk gustukoena?** - Kafia.
 - **Eta nazkagarriena?** - Likoreak.
 - **Tabernari on batek nolakoa behar du izan?** - Bezeroak agindutakoa ein eta isilik egoten jakin bihar dau.
 - **Zer ospatu nahi zenuke txanpain botila batez?**
 - Bakia.
 - **Mozkorrak beti dio egia.** - Bai, egia da.
 - **Pintxo bat?** - Patata-tortila.
 - **Egia al da tabernariok asko ligatzen duzuela?**
 - Ez dot uste.
 - **Taberna askotan telebista piztuta egoten da baina soinurik gabe. Zergatik?** - Musikia entzuteko, ez?
 - **Musika mota bat?** - Mikel Laboa gustatzen jata.
 - **Karta joko bat?** - Musa, baina ez naiz zalia.
 - **Tragoa eskatzera mugatzen den bezero isila ala azken orduko mozkorra?** - Bezero isila, ze azken orduko mozkorra oso pesaua izaten da.
 - **Noiz sortzen da girorik politena zure tabernan?**
 - Futbol partiduren bat dauanian.
 - **Goizean goiz jaikitzen denari Jainkoak laguntzen dio.** - Ba... ni seiretan jaikitzen naiz eta horregatik ez dia asko lagundu!
 - **Asteko egunik onena?**
 - Larunbata, arratsaldez jai dakat eta.
- Amaia Gorostiza**

LASA
JATETXEA



OZAETA JAUREGIA
(Bergarako
hegoaldeko irteera)

MONUMENTU
NAZIONALA



Tel: 76 10 55 **BERGARA**

EZKONTZETARAKO
JANGELA
ZABAL eta APROPOSA

PARKING PRIBATUA
TERRAZA
eta LORATEGIA

Aste honetako DEGUSTAZIO MENUA


- Ahate gibel eta trufazko aspik-a
 - Honddo budina berroen saltsarekin
 - Txangurroz betetako legatza
 - Magret-a erreta patata pobre eta erromero usain gozoarekin
 - Ezti izozkia, intxaursaltsazko couli-en gainean
 - Sorbeteak aukeran, 3. urteko ardoa, kafea + Petit Suis-a
- 4.900 pta. + BEZ (%7)**

Ttipi-ttapa, ttipa-ttapa, Elgoibar Korrika!

Korrikaren eta euskararen aldeko lehen artean eguerdiko 2:30ak pasatxo iritsi zen Korrikaren 10. edizioa joan den hilaren 21ean Elgoibarrera. Lehen Testigua Saturixon hartu zen. Handik beste errelebu bat egin zen Sig-mako etxeetara iritsi aurretik. Behin Sigman, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte-kideek hartu zuten testigua. Han inguruan bildutako jendetzak harre-beroa egin zion Korrikari, bai eguraldiak berak lagundu zuelako bai jende ugari elkartu zelako kale bazterretan. Testigua San-



ta Ana kalera iristerakoan, hauexek izan ziren txanda egin zutenak: Herri Institutuko ikasleak, Herri Institutuko irakasleak, Gestora eta Senideak, AEK, Pilar, Ikastola, Herri Eskola, Errotatxo, Gazte Asanblada, HB, Etxepe lantegia, Morkaiko eta Talde Antimilitarista, LAB, Euskadiko Kutxak esponsorizatu-tako Felix Etxeberria eta Jose Gurrutxaga (Korrika guztietan partehartzaileak), Kimetz elkarte, Txankakua, Club Deportivo, Haizea Emakume Taldea eta Al-tzolako ordezkariak.



Antzerkia Gurutze Gorrikoen eskutik

Gurutze Gorriko Gazte Taldekoek arrazakeriaren eguna zela-eta antzerkia egin zuten joan den hilaren 22an Mekanikako aretoan. Antzezlanaz umeez beraiek asmatutako eta antzeztutako istorioa zen. Muntaiak xumea bazen ere, tarte polita pasatu zutela dudarik ez dago.



Herri Eskolako irteera

Herri Eskolako haur eta gurasoek martxoaren 23an, igande, mendi irteera egin zuten Aubixatik San Migelera bitartean. Eguraldi eguzkitsuari esker, egun polita pasatu zuten. Txangoan guztira 40 bat lagun izan ziren.



Iñaki Aranberrik irabazi zuen Euskaraokean

Elgoibarren grabatutako Euskaraokearen bospasei programak apirilaren 14tik 19ra bitartean emango dituzte ETB1ean arratsaldeko 8etaetik aurrera. Elgoibarko ikas-tetxe ezberdinetako hainbat neska-mutil agertuko dira Plaza Handian kokatu zen eskenatokian abesten. Elgoibarko saioan San Bartolome Ikastolako Iñaki Aranberri izan zen irabazlea, argazkian kantari ageri dena. 14 urteko mutiko honek bi abesti kantatu zituen, "Chiquilla" eta "Aitormena". Berak esan digunez, "eskenatokira igo nintzenez nerbioak desagertu ein zitzaizkidan eta nahiko ondo abestu naban, 'Aitormena' batez ere". Gaztetxo honi izugarri gustatzen zaio abestea eta esan digunez, maiz-tzean izango den finalerdian parte hartuko du. Zorte on!

Publizista aldaketa BARREn

Martxoaren hasieran maketzaile al-daketaren berri eman bagenizuen, orain-goan publizista aldaketa da notizia. Miryam Aldazabal urtebete egon da BARRE-Neko publizista lanetan eta bikain bete du bere zeregina. Baina bizitzak aldaketak izaten ditu eta Miryam badoa beste enpresa batera. BARREn geratzen garenok zortetik onena opa diogu etapa profesional berrian. Miryamek lagatako hutsunea Miren Morenok beteko du. 25 urteko beska elgoibartar honek Zuzendari Idazkaritza eta Marketing ikasketak egin ditu eta bera izango da BARREneko publizitate lortzeko ardura duena. Zortetik onena Mirenentzat ere.



Bigarren urtez segidan egin dira Aste Santuko prozesioak

Iaz berreskuratu zen prozesioen ohiturak izan du aurten jarraipenik. Erramu domekan, martxoaren 23an, erramuen prozesioa egin zen eta Pazko igandean, martxoaren 30ean, Jesusen eta Amabirjinaren topaketa izan zen Plaza Handian. Argazkia Pazko egunari dagokio. Ikus dai-tekeen bezala, jende mordoska inguratu zen. Lehendabizi ongi-etorria egin zitzairen bi irudiei aureskua dantzatzuz. Segidan irudien topaketa izan zen. Bi prozesioetan herritar ugari hartu zuen parte.

A. J. GARATE



azkue

Amaitu da San Lorentzoko Pilota Txapelketa

Joan den martxoaren 22an jokatu zen San Lorentzoko Eskuz Binakako Pilota txapelketaren azken partidua. Bi maila izan ditu txapelketak. Lehen mailan Txurruka eta Agirrebeña izan ziren txapelkun 22 eta 14 irabazi baitzuten Beraza eta Soraluzeren aurkako norgehiagokan. Bigarren mailan, berriz, Leiaristi aita-semeak 22 eta 12 nagusitu ziren Ibarluzea eta Osororen aurrean. Txapelketa urtearen lehenengoan hasi zen eta 15 bikotek hartu du parte guztira. Bikote guztiak elgoibartarrak izan dira, San Pedro, San Lorentzo eta San Migel auzoetakoak, gehienbat.

Ikastolako ikasleen jaialdia

San Bartolome Ikastolako DBH eta BBBko ikasleek jaialdia egin zuten joan den hilaren 20an Herriko Antzokian. Kasik bi orduz luzatu zen ikuskizunean denetik egin zuten ikasleek: antzerkia, sketchak, telebistako programen eta iragarkien parodiak, etab. Argazkiko eskena Txiskola programaren parodiari dagokio eta kontatu zituzten txisteez eragindako barre algarak ikusita, dudarik ez dago benetako Txiskolan ez luketela batere paper txarrik egingo.



Aerobic-eko zerbitzuaren deialdi berria egingo da

Azken hilabeteotan tira-bira handiak izan dira Kirol Patronatuko aerobic zerbitzua dela eta. Izan ere, duela pare bat aste HBk Patronatua eta bereziki gerentea salatu zituen aipatu zerbitzuaren adjudikazioan izan diren ustezko irregulartateak direla eta. Honen aurrean, joan zen astean Patronatuko Batzorde Errektoreak prentsaurrekoa eman zuen eta bertan emandako azalpenen ostean, lehendakaria den Guillermo Garate alkateak, aerobic zerbitzuaren oinarriak errebisatu eta deialdi berria egingo dela adierazi zuen.

Guillermo Garate Patronatuko lehendakaria, Gotzon Arrieta (EAJ), Juan Ignacio Ausin (IU-EB), Juan Carlos Avian (PP), J. M. Herrero (PSE) eta Ramon Mujika teknikaria azaldu ziren komunikabideen aurrean. Garatek hartu zuen hitza eta lehenik eta behin adjudikazio prozesua azaldu zuen, "eskaerak aurkezteko epea amaitu eta plikak Patronatuko idazkariak eta Galant enpresako kide batek ireki zituzten". Ondoren, Kirol Teknikariak dokumentu guztiak begiztatu eta Patronatuko Batzordean aurkeztu zituen. Gogoan izan behar da lehiaketa aerobic-erako ezezik, garbiketa, igeriketa

eta masaiarako ere bazela. "Aerobic-ari dagokionean hiru eskera jaso genituen. Horietako batek 1700 pta. eskaintzen zituen orduko eta beste batek 1740 pta. Biek 8 puntu jaso zituzten. Hortik aurrera esperientzia, titulazioa eta bestelakoak baloratu eta lehenengoari adjudikatu zitzaion zerbitzua". Halere, lehenengoak ez zuen euskara frogatu, ez eta bigarren geratu zenak ere. Hirugarrena enpresa bat izan zen baina honek ez zuen inork aurkeztu euskarako frogatu egitera. Ondorioz, "egoera ikusita, euskarari dagokion oinarriak errebisatu eta plazaren deialdia berriz egingo da guztia hasieratik hasiz".



Aerobic-aren adjudikazioan eskariak aurkeztu zituzten artean ez zuen inork euskara maila eman.

Kirol Teknikariarengan konfidantza

Garatek Patronatuaren izenean, Ramon Mujika teknikariarengan duten konfidantza azpimarratu zuen, "adjudikazioan bere papera zintzo jokatu du. HBk ezin du gauza bera esan 6 bilere-tatik 2ra bakarrik agertu baita. HBk irregulartasunen bat ikusi badu epaitegian sala dezala, baina ez pertsona zintzoen izena zikindu inolako frogarik gabe. HB ez da bileretara azaldu, beraz, nola esan dezake Mujikak

plikak manipulatu zituela? Monitore titulua ez zen eskatzen, are gehiago ez dago Aerobic federaziorik ez eta titulu ofizialik ere. Patronatuko Batzordearen ustez eskaintza egin zuten guztiak nahikoa preparazio zuten". Bukatzeko, orain urte batzuk HBk argitaratutako orri batzuetan Ramon Mujikaren funtzioa goraiatzeko zuela adierazi zuen, "gaur egun iraindu egin dute eta postu-tik kentzeko eskatu. Patronatuak konfidantza guztia jarrita du berarengan".

● Ekain-eko Lagunak Elkarteak sortu nahi da

Ekain kobetako margoen erreproduktzioa Astigarrabiako Xoxuar-te-Errekan egingo da. Proiektuak, Deba Behean zehar laberinto-zirkuito magiko bat osatu eta besteak beste museoak eraikiz eskualdean turismoa bultzatu nahi du. Proiektua bultzatu asmoz Ekaineko Lagunak elkarteak sortu nahi da. Horretarako datorren asteartean izango den bilerarako 32 pertsona gonbidatuak izan dira, besteak beste, Antxon Urrusolo, Eduardo Txillida, Karlos Argiñano, Agustin Ibarrola, Imanol Arias eta Ainhoa Lodoso, BARRE-Neko zuzendaria.

Aberri Egunean, Ikurrina Udaletxean

Joan den martxoaren 30ean Aberri Eguna ospatu zuten Euskal Herriko abertzale guztiak. Elgoibarko Udaletxean Ikurrinak ageri ziren goizean goizetik martxoaren 24ko plenoan hala egitea erabaki baitzuten moztu baten bidez. Ikurrinaren aldeko moztioan herritarrek euren etxeetan Ikurrina jartzeko deia ere bazetorren, nahiz eta lehioetan Ikurrina gutxi ageri ziren Aberri egunean.



Altzolan jaio eta bizi den komikigilea dugu gaurkoan atal honetako protagonista. Txikitatik aitaren-gandik jaso zuen komiekikiko zaletasuna, "beti egon dira nire etxean komiki mordoa". Lehenengo irakurle, gero, komiki egile. 31 urte dituen altzolatari honek "komiki zaletu" bezala definitzen du bere burua. "El hombre enmascarado", "El principe valiente", "El Jabato" eta beste pertsonaien abenturen artean hazitako zaletasunak izan du zerikusirik Albertoren komiki lanetan. Kokoe komiki elkarteko sortzailea izan zen eta BARRNeko Harrigorrikoerrotaberritarrek familia ere bere kreazioa izan da. Joan zen zenbakian agertu zen familia xeble honen azken biñeta, Albertok utzi egin baitu komikien mundua.

ALBERTO

“Umore beltza da nire komikien ezaugarria”

– **Askorentzat Alberto Kokoe.** - Kalian askok deitzen diate hola. Kokoe buruan naukan idea bat zan. 90ian, Udalak antolatu zaban komiki lehiaketa irabazi gendunei komentau eta taldetxo bat sortu gendun. Subentzioa, lokalak eta dana eskuratu gendun. Gehixenez 18 izan gera.

– **Zer dela eta uzten duzu komikien mundua?** - Komikiak laga ditut, marrazten jarraitzen dot, paisajiak, bodegoiak... Ez dakat astirik eta nekatu ere ein naiz. Oso nekatua da historixa bat kontatzia.

– **Zein komiki irakurtzen zenituen txikitan?** - “El Corsario de hierro”, “Flash Gordon”, super heroei buruzkuak eta “Gordito relleño”, “Anacleto”, “La familia Cebolleta”... mila daude. Neskenak ere bai: “Lili”, “Esther” hoiek noizean behin.

– **Noiz hasi zinen marraz-**

ten? - Eskolako testu liburu guztietako orrixetan marrazkixak dibujatzen nitxun. 11 urtekin edo.

– **Sortu zenuen lehen pertsonaia?** - Ez dago bat konkretua. Komiki tirak eta istorio motzak ein izan ditxut beti. Batzuk idatzi eitxen dabe, nik marraztu.

– **Komikien historiako zein pertsonaiarekin geratzen zara?** - Zaila da bat esatia. Beti euki izan ditxut gustuko emakumezkuak: “Ghita de Arizarr”, Thornerena, eta Milo Manaran emakumiak.

– **Zure gustuek ba al dute isladarik zure lanetan?** - Ganoraz marrazten hasi nitzanian odoltsuak eta biolentoak gustazen jatazen, oin ere bai. Pare bat aldiz sexu askoko istorixak marraztu ditxut. Hala ere, umore beltza da gehixen gustatzen jata. Sexu apur bat, biolentzia eta umore beltza konbinatzen badira komiki batean,

neretzat koktel perfektua da. Gaur egun Estatuan gehien saltzen dianak komiki erotikokoak dira. Nahiz eta erotismo hitza nahiko anbiguoan dan. Nere ustez gaur eitxen dana erotismoa baino gehixoda, pornografia saltzen da. Horri esker irauten du bizirik komikigintzak. Sexua eta biolentzia, kontzesiorik gabe.

– **Umeen komikietako pertsonaia berririk ez da sortzen. Mortadelo, Karpanta eta horiez aparte, gaur egun ba al dago zerbait?** - Egixa da Mortadelo eta Filemon, Zipi y Zape eta hoiek oso zaharrak diala. Gaur egun gertatzen dana da, komiki munduan pertsonaia berririk bat ateratzen bada, berehala telebistara eramaten dutela, telebistako produktu bihurtuz.

– **Nork hartuko du BARRNeko Harrigorrikoerrotaberritarren erreleboa?** - Kokoeko Mikel Cornejo eta Iban Barrenetxeak pertsonaia berririk eingo ditxue. Hasieran azken biñetan familixia hiltzia pentsaunaban baina gero, irla batian lagatzia erabaki naban.

– **Familiako zein pertsonaiari diozu estimazio berezia?** - Aitxari, Eusebiori. Gauza txar guztiak berari pasatzen jakoz. Askotan esan diate beti emaztian alde jartzan nitzala, txiste askotan gizonezkua ridikuluan lagatzen nabala.

– **Astero-astero, lau urtetan txiste bat asmatzea...** - Beti txiste batekin pentsatzen. Gehixenak nik asmatutakuak diaz, beste batzuk taldian komentautakuak. Gehixenak nahiko beltzak, baina nere esku balego, beltzauak izango zian.

BESTEAK ESANA

“Gauza zaila lortu du Harrigorrikoerrotaberritarrek: umore herrikoia, guztiongana iristen dena”.
MIKEL CORNEJO



MARTXOAN

●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Beñat Bollar Mujika (Martxoak 1)
- Ane Astigarraga Osoro (Martxoak 8)
- Carlos Gómez Alvarez (Martxoak 15)
- Oier Ruiz Osoro (Martxoak 28)

●●●● EZKONTZAK ●●●●

- Jose Angel Egia Iriondo eta Arrate an Martin Egaña (Martxoak 15)
- Jose Antonio Bouza Vila eta Lourdes Rodriguez Alvarez (Martxoak 22)
- Miguel Angel Puerta Laejo eta Verónica Araceli Balmaseda Murillo (Martxoak 26)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Nieves Astigarraga Uria, 33 urte (Martxoak 1)
- Maria Concepción Odriozola Salegi, 75 urte (Martxoak 2)
- Felicitas Del Olmo Cabellos, 80 urte (Martxoak 2)
- Agapita Gil Zengotita, 77 urte (Martxoak 6)
- Pedro Maria Clerigué García, 73 urte (Martxoak 8)
- Isabel Ansola Arzuaga, 75 urte (Martxoak 10)
- Benito Juaristi Uranga, 78 urte (Martxoak 11)
- Teresa Fndz. de Retana Atarri de San Vicente, 88 urte (Martxoak 13)
- Julian González Gutierrez, 71 urte (Martxoak 13)
- Nicolas Egurrola Bilbao, 85 urte (Martxoak 15)
- Maria Aizpitarte Soraluze, 90 urte (Martxoak 17)
- Juana Urresti Zenarruzabeitia, 87 urte (Martxoak 28)

G O G O R A T U Z

Antonio Santolaya

(1900-1980)




- 1900 apirilaren 25ean jaio zen Argandan (Madril). 6 anai-arrebetatik gazteena zen.
- 17 urterekin etorri zen Elgoibarrera, Correos-eko administrari karguarekin.
- Felisa Lizundiarekin ezkondu eta 3 seme-alaba izan zituzten.
- 1936ko gerratearen aurretik "Grupo Artístico" eta "Orfeón Lagun Onak de Elgoibar"ko zuzendaria izan zen, hainbat obra eginez herriko berdura plazan.
- Gerra ostean, 1936tik 1940ra erbesteratuta egon zen Frantzian. Hondarretako espetxean hainbat bider izandakoa politika kontuengatik.
- C.D. Elgoibarko lehendakariordea izan zen 1954an.
- Santa Ana kalean "teatro Odeón" sortu zuen. Urte askoan gerentea izan zen. Bertatik pasatu ziren Estatuko konpainiarik onenak: antzerkia, errebista, zarzuela, kontzertuak etab. baita atzerritarak ere.
- Doan laga izan zuen lokala sarritan jubilatuek zinea ikusteko, afizionatuek antzerkia edo zarzuelak egiteko...
- Gizon argia eta ezaguna, popularra benetan. Irakurtzea zuen gogoko bai eta musika eta zezenak ere. Azken gai honi buruz komentario asko egindakoa zen "Bar Irureta"nean kafea hartzen zuen bitartean.
- 1980ko uztailaren 31n hil zen.

Juanito Gorostiza

Nor ote da?

Nor ote da? lehiaketaren erantzuna (188. zenbakia): **Sabin Arriola** (argazkian). Asmatu dutenak hauek izan dira: Ana M. Mugerza Oria, Idoia Uriarte Mugerza, Sabin Argarate, Edurne Juaristi, M. Angeles Zabala eta Joseba Argarate.



Jon Aranoa
Gillermo Torres

Albaitaritza
klinika

San Roke, 26 • Elgoibar • TEL: 74 07 04 – 908 87 39 40

POL-POL

T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR

GREGORIO KORTABERRIA:

“1.000 ardikin ibiltzen nitzan Oregonen”

*Gregorio Kortaberria Elgoibarren eta Greg Cortaberria Ameriketan. San Pedroko Otso-Txiki base-
rrian jaioa, 25 urte zituela
Oregonera (EEBB) alde
egin zuen artzain. Hiru ur-
terako joan zen baina 29
daramatza bertan. Hilabete
honetan bere herrian izan
da eta berarekin izan gara
berriketan. San Pedroko
kanpa ederrean eguzkitan
eseri eta makina bat kontu-
rekin etorri zaigu Grego-
rio. Euskara garbi eta jato-
rra mantentzen du, baina
amerikarren soinua erans-
ten dio bere jarioari.*

**– 25 urterekin Ameriketa-
ra. Nolatan?**

- Badakizu, gaztia eta haizia buruan. Hemen ere ondo bizi ginan baina juer-
gak ere asko ein gendun, di-
rurik ezin aurrerau, dana
gastatzen gendun... Beste
bizimodu bat nahi nabau.

**– Hiru urterako kontra-
tuarekin joan zinen, ez?**

- Bai. Etorri zan epoka
bat artzainak bihar zitxuela
eta orduan momentua zala
ikusitza animau nitzan. Le-
lengo examina ein bihar
izan nabau Bilbon. Galdera
batzuk eitxen zitxuen, aber
ardixan hagineta begiratu-
ta edadia jakin zeiken ala
ez... Holakuak. Baina biha-
rra zauan eta ez zan proble-
marik egoten. Hiru urteko
kontratua eitxen zeben art-

zain juteko.

**– Bizimodu gogorra al
zen?**

- Oso gogorra. Batetik,
inglesa eitxen zeben dana
eta nik ez nabau berbarik
ulertzen. Gainera, beti ardi
artian, harek ez dia euskal-
dunak edo amerikenuak iza-
ten eta eskolarik ez nabau
euki inglesa ikasteko. Poli-
ki-poliki denboriak in ikasi
nabau berbetan eta ulertzen,
idazten ez. Gainera, artzain
bakoitzari 1000 ardin ardu-
ria ematen ziguten eta han
ez zaon ez domekarik ez
jairik. 7 egunetan ein bihar
zan lana.

– Asko joan zineten.

- Bai. Orduan han bizi-
modu askoz hobia zan. Oin,
en kanbio, Euskal Herrian
gauzak alde horretatik one-
ra ein dabe. Oregonera jun
eta 25 urte egon nitzan
buelatu gabe eta etorritxa-
kuan gauzak oso kanbixauta
ikusitza nitxun. Bizitza ona
dao hemen, Amerikan bes-
tekua. Oin ez da inor juten
Ameriketara dirua eitxera.

**– Ia 30 urte daramatzazu
Oregonen, Gregorio.**

- Bai. Hasieran gogorra
izan bazan ere, gero ohitxu
eitxen zera bertako bizimo-
dura eta kostau eitxen da
bueltatzia. Nik aukeria euki
nabau residente papelak ei-
txeko eta bertan geratu ni-
tzan.

– Baita ezkondu ere.

- Bai, neska bat ezagutu
nabau bertakua eta haretxe-
kin ezkondu nitzan. 14 urte
ein genduazan ezkondu

eta gero apartau ein ginan.
20 urteko semia daukat,
Greg. Terrenua eta etxia ere
erosi nitxun eta gero eta lo-
tura gehixo nakazen Orego-
nen Elgoibarrera bueltatze-
ko.

– Bertakotuta?

- Han kanpokua beti, he-
men ere kanpokua. Nik bi-
zitan erdixa baino gehixo
eman dot Amerikan baina
beti euskaldun sentidu naiz.
Hor ez dao dudarik.

– Zertan diharduzu orain?


- Oin danetik piskat.
Artzain izatiari laga eta ba-
suan hasi nitzan lanian. te-
rerenuak lantzen, zuhai-
tzak botatzen eta ardixen la-
nia mozten. Urtian hiru edo
lau hilabetian basuan ari-
tzen naiz, konpainia baten-
tzat eitxen dot lan eta harek
batian terreno batera eta
bestian bestera bialtzen nau.
Hortik apartekua partikular
ardixeri lanian mozten. Zaila
dao bizitza etaratzia.

– Zergatik?

- Adelantuak dana jan
dau. Lehen 10 pertsona
bihar zian tokixan oin 2 ba-
karrik bihar dia. Basuan ere,
makinarixiak ezin daban to-
kixan sartzen gera gu, alda-
pan edo arbola haundixa
botatzen.

– Eta noizko buelta?

- Horixe nao pentsatzen.
Han semia daukat baina ha-
rek ere bere bizitza hasiko
dau eta nik Elgoibarrera
bueltatzia nahi dot, baserri-
ra. Oregonen eitxen doten
lanera, mendira, baina neu-
re herrian.



Patata sartzea

Martxoa izaten da hilabeterik aproposena patata sartzeko. Makinaz lurra erein, atxurraz zuloa egin eta hantxe sartzan dira patatak; zulo baten eta besteren artean 30 zm. inguruko tartea utzita, sustraiek bat egin eta nahas ez daitezten. Hortik aurrera ura behar du patatak. Euskal Herrian normalean ez da arazorik izaten baina, euririk egiten ez badu, garaztatu egin behar da urez asetzeko lurra eta, hortaz, baita patata landarea ere.

Aldapa edo laua izan berdin-berdin ateratzen da patata, nahiz eta lautada hobe den. Gaur egun ez da mamorro asko ibiltzen inguruotan. Izan ere, pinuen kokoa hiltzeko hegazkinek botatzen duten likidoa oso ona omen da beste guztiak ere desagertarazteko. Hortaz, alde horretatik badirudi arazo gehiegi ez dela izaten.

Sirimiriak kalte

Halere, bada gaixotasun bat noiz edo noiz patatan agertzen dena, gorrina deitzen omen da. Eragilea sirimiria ei da, Euskal Herrian hain ezaguna eta arrunta dugun euri tontoa. Sirimiriak lur azpira sartu eta patata hartzen badu tentu ibili beharra dago, arriskua baitago patata hiltzeko. Horregatik, sirimiriak patatari kalte egin diola igerriz gero, onena patata ateratzea da, nahiz eta txikia izan. Hobe txikia, handitzen utzi eta bat ere gabe geratzea baino.

Patata berria eta zaharra

Uztailean jasotzen da lehen patata, “patata berria” deitzen dena. Honako hau azal zuri lisodun patata da, biribila eta oso ona. Irail aldera, berriz, bigarren uztaaldia jasotzen da eta “patata zaharra” izaten da garai horretarako. Patata berria garaian garaiakoa bada ere, zaharrak urte gutzirako balio du eta azal ilun eta zimurtsuagoa izaten du. Patata landare bakoitzak zazpina ale ematen ditu gutxi-gora behera.

Patatak bere tokia behar du, bere terrenoa. Hortaz, patata landatzen den tokian beste zerbait egotea ez da komeni. Are gehiago, patatarekin txandakako nekazaritza sistema erabiltzea da komenigarriena. Urte batetik bestera patata sartzan den lur zatia aldatuz. Horrela, inolako zomorrerik sortu eta gaisotasunik garatzea ekiditen da.



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 67 68 64



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

Zabale-Torre baserria

San Antolin edo Arriaga auzoan kokatzen da Zabale-Torre baserria. Dorretxe itxurako baserri hau Elgoibarko ederretarikoa da eta gaur egun bi etxebizitza dau. Horietariko batean bizi dira Bergaretxe-Olabidetak, oraindik orain baserritik bizi direnak.

Esnea Gurelesari saltzen diote, "lehen kalia ere partitzen gendun baina oin apenas. Jendiak jakua nahixau dau, ez dakitx, baserriko esnia potolua dalako edo, gizenaua edo... Oin zela jende guztia mehe egotia nahi daban... Guk Gurelesari saltzen diogu".

Juan Luis Bergaretxe Zabale-Torre baserrian jaio zen. Bere aitona zenak erosi zuen, orain 100 urte inguru. Juan Luisek ez du baserriko lana den beste ezer ezagutu, "gogorra da baserriko lana. Hemen ez dao jaiegunik, ez kanpora oporretan juterik. Zeinek zainduko ditxu bestela ganauak? Gainera, guk 65 urtera arte ez dakau pensiorik, eta hori ere oso bajua".

Aukera balute, kalera

Aukerarik balu, zalantzarik gabe baserria saldu eta kalera joango litzake bizitzera, "eskaintza ona badator, saldu eta kalia trankil biziko nintzake gustura, Nahikua lan eindakua naiz baserrixan". Juan Luisek eta emazte Maritxuk semearentzat ere ez dute baserriko bizitarik nahi, "gustatzen jakon baina burutik kendu nion. Ni ere gustau eta gustau hasi nitzan eta baitxa jarraitxu ere eta mila bider damutu izan naiz. Kalia bentaja gehixu dao. Tailarrian lanian dakagu semia, gustura bai bera eta baitxa gu ere. Baserrixa bizi-tzeko nahi badau bale, baina lanerako hobe dauka tailerra. Oin ere, kaletar asko astebukaeratarako etxia eitzen dabe mendixan. Baina hori kapritxoko etxia da, ez baserriko bizimodu gogorra.



Historia piskat

XV. mendean hasita aurkitu dira baserri honi buruzko lehen datuak Maria Lopez Lalsalderengandik ezagutzen da familiaren jarraipena. Maria, Fernando Zabalarekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten: Juan, Rodrigo eta Lope. Dirudienek Lopek San Frantzisko komentua eraikuntzan diruz lagundu zuen 1516an eta komentua ebanjelio aldean hilobia izan zuten Zabala etxeok.

Holakorik ez dau inork nahi".

Lantegien zarata

Goizeko 6,30etan esnatu, kortako lanak egin, gosaldu, esnea partitu eta berriz ere baserrira, baratzean lana dela, ganadua dela... "Lehen akaso baserrixak bazakan bentajaren bat, trankiladadia eta... Oin, enkanbio, gauzak diferentiak dia. Tailer mordua dakau inguruan eta zaratia dala, kotxiak diala, zikinak diala... Hemen ez dao trankil bizitzerik".

Zabale-Torre inguruetako baserri dotoreena da. Ederra benetan eta historia aldetik dexente gauza dituen. Juan Luisek esan bezala, "jende asko etortzen da baserrixa ikustera, fotografixak etaratzera... Oin, ardo botila bat ekarri eta laguntzera inor!" Atzerritarak, herritarak, inguruetako jendea... Denetik hurreratzen da. Orain dela gutxi, Imanol abeslaria bera ere joan omen zitzaian bisitan, baserria ezagutu nahi zuela eta.

ZABALE-TORRE

- **Auzoa:** Arriaga
- **Bizilagunak:** Juan Luis Bergaretxe, 61 urte; Maritxu Olabide, 48 urte eta Xabier Bergaretxe, 23 urte.
- **Lur hedadura:** 10 hektarea
- **Esplotazioa:** Esnetako ganadua, 5 behi eta 8 txahal. Baratzean ere aritzen dira etxerako. Baserritik bizi dira.

MINTXETA - GOENAGA - SAN LORENTZO



Ibilbidea

■ **1** Mintxetako apar-kalekuan kotxea utzi eta Erretxindiko baserrira galipotezko bidetik joan eta han San Rokerantz daraman ezkerreko bidea hartu behar da.

■ **2** San Roken bertan baseliza bat, ur garbiko iturria, bolatokia, bankuak, zuhaitzak eta Iberdrolaren zentrala daude. Bidea jarraituz baserri batzuen ondotik pasatuko gara: Panparron, Gurutze, Lapramendi... Lapramenditik 100 m. ingurura bidegurutze bat dago.

■ **3** Bidegurutzean ezkerreko bidea hartu behar da eta 50 metrora Agarre baserriaren aurretik pasatuko gara. Une horretatik aurrera errepidea aldapatsua da. Galipotezko bidea jarraituz eskuinean dagoen errebueltaren ezkeraldera Goenaga baserria dago.

■ **4** Goenaga baserri-tik ezkerrean joan behar da. Sarreran dagoen hesia zeharkatu eta markatuta

dagoen bidea jarraituz pinadi batean sartuko gara. Jaisterakoan bi atesare aurkituko ditugu eta horiek igaro ondoren Bolueta baserri inguruan aurkituko gara. Goenatik Bolueta dagoen bidea galipotik gabea da eta eurria eginez gero lokatza egon daiteke. Lehenengo atesarea pasatu eta bidegurutze bat aurkituko dugu. Eskuin aldeko bidea hartuta iturri batera iristen da baina guk behe-rantz doana hartuko dugu. Bolueta baserri-tik behe-rantz jarraitu eta Etxeberri-Goen baserrira iritsiko gara.

■ **5** Baserri honen aurretik pasa eta bidegurutze batera heltzerakoan behera doan bidea hartuko dugu. Eta minutu batzutura beste bidegurutze bat ikusiko dugu.

■ **6** Bidegurutzean eskumako bidea hartu.

■ **7** Azaola baserrira iritsiko gara. Asfaltatutako bide utzi gabe metro

batzuk jaitsi eta erdi eroritako baserri batera igoko gara berriz.

■ **8** San Lorentzo parean dagoen baserrian bukatzen da asfaltatutako bidea.

Baina ibilaldia luzatu nahi badugu erdi eroritako baserri ingurura iritsitakoan ezkerretara, Gorostizabal baserrira doan bide zidorra dago.

■ **9** Gorostizabal baserrira doan asfaltatutako pista hartu eta Orraindi, Gelasoro eta Ermube baserriak pasako ditugu.

■ **10** Iturri ondoan dauden zuhaitz eta jarlekuaren parean San Lorentzoko errepidera iritsiko gara.

■ **11** Errepidetik San Lorentzoko baselizara joan gaitezke eta ezkerreko errepidea hartu eta erreka jarraituz itzuliko gara Mintxetara.

Ibilaldiak 8,5 km. inguru ditu eta 2,30 orduan egin daiteke.

aKontuan izatekoak

A. San Roken baseliza, ur garbiko iturria, bolatokia, zuhaitzak, zelai eder bat eta jarlekuak daude. Bertatik Elgoibar eta inguru zoragarria ikus daiteke.

B. San Lorentzo izeneko erreka ondotik pasiera izugarri polita dago Sallobente auzora iristen dena. Bidean beti loraz ingurututua egoten den Ama Birjina dago. Sallobenten, berriz, baseliza dago eta han historiaurreko margo ederrak. Atzeko aldean, berriz, zelai eder batean mahai eta aulkiak, bolatokia eta errekatxoak daude. San Lorentzon bertan Artazo baserria eta frontoia daude.

Iturria: Deba Deheko gida turistikoa.



Argazki hau **Moises Agirrek** laga digu eta 1977ko azarokoa da. Ez da oso zaharra, beraz. Eguerdiko txikiteoan, Pol-Pol tabernatik ir-teterakoan Plaza Txikian elkartu zen lagun talde hau, eta Nicasi Andonegik erretratua atera zien.

Ezkerretik hasita, ikus dezagun nor diren txikiteoan atera zen lagun kuadrila hau:

Prantzeska Andonegi (†), Rafael Mugerza (†), Antonio Azpiazu (†), Jose Mari Rivero (†), Miguel Sanchez, Moises Agirre, Felix Zubiaurre, Antonio Gabilondo (†), Cruz Gurrutxaga (†) eta Amantzi Konde.



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.


Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



“Gipuzkoan dauden talderik onenetarikoak dira Elgoibarko areto futbolekoak”



Aitor Elizburu

- **Adina: 25**
- **Aitor ala Txistu nahiago?**
Berdin zait
- **Oporrak nola? Kanpinean**
- **Polenari alergia diozu? Ez,**
hautsari
- **Sekula egingo ez zenukeen kirola?** Kirol arriskutsuak: puenting-a, parakaidismoa...

– **Nolatan utzi duzu areto futbola?** - Oraindik ez dut utzi baina aurten azken urtea izango da. Motibazio falta daukat eta hainbeste urtetan nekatu egiten zara: entrenamenduak gaueko 10ak arte, asteburuetan hara eta hona partidua jokatzera...

– **Zenbat urte eman dituzu areto futbolean?** - Zazpi. Maila autonomikoan jokatu dut beti. Iaz liga irabazteko zorian egon ginen baina azken partidua galdu egin genuen, etxean. Beste urte batean kopa irabazi genuen.

– **Eta futbito?** - Futbitoan jarraituko dut. Ez da hain gogorra, igande goizean partidu bat jokatzeari besterik ez delako. Lagun arteko partidu bat izaten da eta gustura joaten naiz.

– **Zein ekipotan jokatzeko duzu?** - Aldavas-en. Bi urte daramatzat talde honetan eta lehenago Mimox-en jokatu nuen eta lehenago beste batean. Mimox-ekin txapelkun izan ginen duela urte batzuk. Futbitoan ere zazpi-zortzi urte daramatzat.

– **Zer dela eta hartu zenuen Futbito txapelketa antolatzeko ardura?** - Iaz, aurretik egon zirenak antolakuntza uzteko asmoa zutela jakin nuen eta norbaitek ez bazuen bere gain hartzen ardura hori txapelketa desagertu egingo zatekeen. Pena bat izango litzateke futbitoan dauden 18 taldeak jokatu ezinik geratzea nork antolatu ez dagoelako. Hori gertatzerik nahi ez nuenetz ni neu hasi nintzen zeregin horretan.

– **Nola ikusten duzu Urasandiko**

txapelketaren etorkizuna? - Areta futboleko kluba futbitoaren antolakuntzan parte hartzen hasi da aurten. Beraiei esker antolakuntza behintzat nahiko ziurztatuta dagoela uste dut.

– **Arbitro lanetan ere aritu al zara?** - Bai eskolarteko jokoetan bai futbito txapelketan.

– **Jokatzeari baino gogorragoa al da?** - Bai, futbitoan batez ere. Etsaiak sortzen zaizkizu nahi gabe, batzuen ustez gaizki arbitratu duzulako.

– **Zer-nolako maila du Elgoibarko areto futbolak?** - Gipuzkoan dauden talderik onenetarikoak dira gureak. Aurten ez gabiltza oso santu baina iaz txapeldunorde izan ginen.

– **Areto futbola, futbolaren anaia pobrea al da?** - Hala esaten da. Futbolearen ibilitako jendea izaten da edo futbolearen jokatzetik izan ez duena. Areta futboleko gehienak futbolearen ibilitakoak dira. Eta alderantziz ere gertatzen da. Pedrusko taldeko gehienak adibidez, futbitoko jokalariek izan dira.


– **Zure esku balego, zer aldatuko zenuke Elgoibarko kirolean?** - Futbolari ematen zaion gehiegizko garrantzia. Pilota, txirrindularitza edo eskalada, azken hau batez ere, gehiago bultzatuko nituzke.

– **Zerbait falta al zaio areto futbolari?** - Udala ondo portatzen da eta gure klubak zaletu gehien erakartzen dituen da Gipuzkoan. Klubaren alde lan egiteko prest dagoen jende gehiago falta da agian.

Ibai Klubeko Aitor Mugerza, judoko txapeldun Frantziako Lourdes-en

Joan den hilean Ibai Gimnasio-ko alebin, infantil eta kadete mailako talde banak Lourdes hiriko (Frantzia) Nazioarteko Judo txapelketan parte hartu zuten. Elgoibarkoekin batera Gasteiz, Santander eta Gipuzkoako beste herri batzuetako taldeak izan ziren. Alebinetan Aitor Mugerzak (argazkian) urrezko domina irabazi zuen.

Zilarrezkoa Xabi Gonzalezek eskuratu zuen. Alebinetan Maialen Morarentzat brontzezkoa izan zen eta kadeteetan Egoitz Morak brontzezkoa lortu zuen. Aitor Mugerzak 10 urte baino ez ditu eta urrezko domina lortu zuen bakarra izan zen. Datozen egunotan Ibaikoek Euskadiko Judo Txapelketan parte hartuko dute.



1.500 bazkide ditu gaur egun Kiroldegiak


Sei hilabeteko balorazioan eskaintzaren hobekuntza azpimarratu ditu zuzendaritzak

Kiroldegia Udalaren esku dagoela sei hilabete pasatu dira eta Patronatuak zuzendaritzak epealdi honen balantzea egin du. "1.500 bazkide ditugu gaur egun, eta honek esan nahi du, biztanlegoaren %15a Kiroldegiko bazkide dela". 1500 bazkide hauek joan den irailean egin zuten Kiroldegiko abonoa, aurretik zeuden bazkide txartelak baliogabe geratu baitziren. Bazkide txartelari dagokionez, abono bereziak jarri dira jubilatu, unibertsitari eta ezinduentzat.

Patronatuak azpimarratzen duen beste puntu garrantzitsu bat "ordutegia zabaldu dugula da". Igerilekua egun osoz dago irekita, eguerdiko 2etatik 3etara bitartean izan ezik, eta larunbatetako ordutegia ere zabalagoa da orain. "Sauna zerbitzuaren ordutegiari buruz beste horrenbeste esan behar da".

Kirol eskaintza

Jendearen harrera ona dela eta, kirol eskaintza ugaritu egin da azken aldian. "Aerobikean 8 talde daude, 200 pertsona guztira. Nagusientzako gimnasiak 60 lagun ditu, Mintxetako muskulazioan bataz beste 125 pertsonak ematen du izena hileroko eta mantenuko gimnasia 11 talde ari dira". Igeriketarak ere izan du gorakadak. 80 pertsona aritu dira igeriketa ikastaroetan eta 30



Igerilekuan eta garbitasunaren atalean egin dira hobekuntza handienak.

bat karatean. Kirol anitza iharduera berri bat izan zen eta gaur egun finkatuta dagoela dirudi 20 laguneko talde batekin. Bestelako ikastaroek ere harrera ezin hobea izan dute: trikitixak 80 lagun, salsak 50, sevillanak 15, eskaladak 10, patinaiak 25, tenisean 200, etab.

Instalakuntzen hobekuntza

Instalakuntzen mantenu eta hobekuntzaren arloan, Udalak zenbait berrikuntza egin ditu Kiroldegian: igerile-

kuko uraren kalitatea zaintzeko jarri den depurazio sistemari esker, urak sekula baino kalitate altuagoa eman du azken aldian Osakidetzaren azterketan jasota dagoenez. Honez gain, igerilekua, harrera, muskulazio gela, biltegia, etab. margotu dira, igerilekurako robot berria erosi, takila berriak jarri, etab. "Garbiketaren arazoan kontu berezia izan dugu. Gureak tailerretako Galant Garbitasuna enpresari eman zaio zerbitzu horren gestioa eta asko hobetu dela uste dugu".

KIROL ALBISTEAK

● Udaberriko I. Kirol txapelketak

Udaberria heldu dela eta, Kirol Patronatuak kirol ezberdinen txapelketak antolatu ditu federatu mailan ez dabilzan zaletuei begira. "Kirol bat gustatu eta txapelketa federatuetan parte hartzerik ez dutenek herritarren arteko txapelketa batean aritzeko aukera ematea da Udaberriko egitasmo honen helburua". Sei kirol ezberdinetan antolatu dira norgehiagokak: tenis, esku pilota, frontenis, ping-pong eta squash-a. Pala, esku

pilota eta frontenisean binaka aritu behar da eta tenisa, ping-pong-a eta squashean banaka. Partiduak asteburuetan izango dira, larunbatetan eta igande goizetan. Kirol bakoitzean apuntatzen den jendearen arabera, txapelketa liga modura edo kanporaketen bidez jokatu da. Izena emateko azken eguna hilaren 14a izango da. Kiroldegitik pasatuta edo 74 44 15 zenbakira deituta eman daiteke izena.

EMAITZAK

Eskubaloia

Zarautz 15 - Pneumax Elg. 23 (Kad. mut.)

Pagoaga Elg. 2 - Leizaran 0 (Jub. nes.)

AloÑa Mendi 19 - Tecnomeca Elg. 28 (Jub. mut.)

AGENDA

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 5

16:00 Tecnomeca Elg. - Egia (Jub. mut.)

17:30 Pneumax Elg. - Arrate Txiki (Kad. mut.)

“Kafe Usainean” programaren lehen saioa jendez gainezka

Izugarrizko arrakasta izan zuen Elgoibarko Izarrak antolatutako “Kafe usainean” egitasmoko 1. emanaldiak. Antolatzailerek 50 laguntzat prestatu bazituzten ere mahaiak, 90 lagunetik gora izan ziren Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailerek esan digutenez, “zerbitzuaren kalitatea bajutxoagoa izan zen horren-

beste jende egotean, baina ikuskizunak merezi zuten eta nahiago genuen jendeari barrura pasatzen lagatzea”. Elkartekoen intentzioa hileroko antolatzea denez, apirilera 90 laguntzako tokia prestatu nahi dutela adierazi digute. Apirilera emanaldirako ikuskizun berriak prestatzen hasita daudela esan digute.



Ezkerrean, jendea kafea hartu bitartean ikuskizunaz disfrutatzen. Lerro hauen gainean, Joseba Alonso aho-soinuarekin.

Udaberri jaia Atxutxiamaikarekin

Martxoaren 22an Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale Taldeak Udaberri Jaia ospatu zuen Udalaren laguntzarekin. Asmoa, udaberriari ongi-etorria egitea zen, eta hala eginzuten Plaza Handian bildutako 80 haurrek. Arratsaldeko 5:30etan hasi zen jaia jolas ezberdinekin. Beranduago,

haurrek txalaparta nola jotzen den ikusteko eta probatzeko aukera izan zuten. Segidan bakoitzak bere etxetik ekarritako otartekoarekin afaritxoa egin zuten eta bukatzeko, Balzola anaiek alaituriko dantzaldian 50 bat haur izan ziren. Bai haurrek bai begiraleek primeran pasa zutela adierazi digute.



ANCHUSTEGUI s_a
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38



ENPRESA ZIENTZIAK

AITOR GURRUTXAGA

ENPRESA ZIENTZIAK

BATXILERGO MODALITATEA

- ▶ Zientifiko-Teknologikoa (Mate II eta Fisika)
- ▶ Gizarte-Zientziak (Matematika aplikatuak II)

UNIBERTSITATEAK ETA IAZ ESKATZEN ZEN NOTA

Enpresa zientziak (Diplomatura)

- ▶ Burgos (Burgos), 5,05
- ▶ Errioxa (Logroño), 5
- ▶ EHU (Bilbo), 5,79
- ▶ EHU (Donostia), 5,66
- ▶ EHU (Oñate), 5
- ▶ Kantabria (Santander), 5,51
- ▶ Nafarroako Publikoa (Iruñea), 5,96
- ▶ Oviedo (Oviedo), 5,8
- ▶ Salamanca (Salamanca), 5,62
- ▶ Valladolid (Valladolid), 5
- ▶ Xixon (Xixon), 5
- ▶ Zaragoza (Zaragoza), 5,76

Enpresa eta Administrazio Zuzendaritza (lizentziatura)

- ▶ Deustu (Bilbo)
- ▶ ESTE (Donostia)
- ▶ OPUS (Iruñea)
- ▶ Kantabria (Santander), 6,06
- ▶ Errioxa (Logroño), 5,6
- ▶ Leon (Leon), 6,23
- ▶ Oviedo (Oviedo), 5,8
- ▶ EHU (Bilbo), 5,6
- ▶ Nafarroako Publikoa 5,96
- ▶ Salamanca (Salamanca), 6,31
- ▶ Done Jakue Konpostelakoa, 5,5
- ▶ Valladolid (Valladolid), 5,5
- ▶ Zaragoza (Zaragoza), 5,6

IRTEERAK

Administrazio publikoan, enpresa pribatuetan edo irakaskuntzan, burtsan, marketing agentea... Lan merkatua oso zabala da kontuan izanik gestio eta administrazio tekniken konplexutasun eta zabaltasuna.

ESTEko unibertsitatean, enpresa zientzietako bigarren ikasturtean dago Aitor Gurrutxaga. Esan digunez, hasieran ez zuen oso garbi ikasketa hauek zer ziren eta lehenengo urtean nahiko gogorra egin zitzaion, "beste gauza batzuen artean klaseak arratsaldez zirelako". Halere, orain gus-tura dago aukeratutako ikasketekin eta denborak aurrera egin ahala, gero eta konbentzituagoa dago ikasketa egokiak hautatu zituela.

– Zergatik aukeratu zenituen enpre-sa zientziak?

- Beti gustatu zaidan karrera bat da eta gainera irteerak ditxu. Beraz...

– Zein ikasgai dituzue?

- Danetik. Hasi matematika finan-tzieroak, ekonomia, giza harremanak administrazioan...

– Asko ikasi behar al da?

- Segun eta ze asignatura. Institutuan bezela, kasu batzuetan batez ere teoria eman eta aplikazio praktikua egiten dogu, esate baterako matemati-ka finantzieroan. Beste batzutan buruz ikastia da gauzia. Neri hori askoz gu-txio gustatzen jata.

– Normala.

- Bueno, egixa esanez gero, behin aprobau dozunian, atzera begiratu eta konturatzen zera interesantia zala. Lelengo kursotik gehixen gustau jata-zen matematika finantzierua, mikroekonomia eta makroeko-nomia.

– Ikasten duzuen guztiak al du zerikusirik gero egin beharko duzuen lanare-kin?

- Bai. Gauza guztiek dake euren esanahia eta eragina.

– Eta azterketak, zer moduz?

- Ez da institutuan bezela, hori garbi dao. Institutuan ira-kasliekin beste ha-rreman bat dao

eta ezagutzen dozu zer eskatzen da-ben. Komunikazio bat dao eta hori igartzen da. Karreran, dana da berrixa nahiz eta aurren bigarren urtia izanik gehixo ezautu dana. Halere, unibersi-dadian hilabete oso bat euki arren az-terketak eitxeko askoz leheno hasi bihar zera ikasten, bestela ez dau denborarik ematen.

– Eguneru ikasi behar da, beraz?

- Bueno, behintzat jarraipen bat ein. Baina ez pentsau denbora guztia ikasten egon bihar zeranik. Badakazu denboria beste gauza batzuk ere eitxe-ko.

– ESTEn azkenengo urtea atzerrian egin dezakezue.


- Bai, aukera ona da bai hizkuntza ikasteko bai esperientzia berri bat izate-ko.

– Zure burua enpresa gizon bezala ikusten al duzu?

- Gustauko litzaidake baina bada-kitx ez dala erreza izango. Poliki-poli-ki eta behetik hasitxa lortzen da gora ailegatzia.

– Eta zein ezaugarri behar ditu enpre-sa gizon batek?

- Batez ere enpresa ba-ten gerentzia nola era-man ezagutu behar du, erabaki ego-kiak hartzen eta langileekin ha-rreman onak izan behar ditu.



INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo EspaDol 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki irratia 74 34 74

4 ostirala

19:00 **ESKULTURA ERAKUSKETA**
 Egilea: Jose Maria Sasieta
 Kultur Etxean
 Hilaren 20ra arte

22:15 **ZINEA**
 "El amor tiene dos caras"

5 larunbata

19:30-22:15 **ZINEA**
 "El amor tiene dos caras"

6 igandea

16:30-19:30-22:15 **ZINEA**
 "El amor tiene dos caras"

7 astelehena

22:15 **ZINEA**
 "El amor tiene dos caras"

8 asteartea

20:00 **ETXEBERRIA PEÑAREN AURKEZPENA**
 Kultur Etxean

11 ostirala

22:00 **ANTZERKIA**
 Antzezlanak: "Fumantxu, Gernikako arbolaren kerizpean"
 Taldea: Ekekei
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra


ZIN



Zuzendaria: Barbra Streisand
 Antzezleak: Barbra Streisand, Jeff Bridges, Lauren Bacall, George

El amor tiene dos caras

Rose eta Gregory Unibertsitateko irakasleak dira. Gregoryk asko sufritu du emakumeengatik eta orain adiskidetasuna eta errespetua da bilatzen duena emakumeengan. Rose eta Gregory elkar ezagutu eta ezkontze-akordio berezi bat egingo dute. Matasunean baino grina intelektualean oinarrituko da euren arteko harremana.



● Eskultura erakusketa

Gaurtik hasita, hilak 4, hilaren 20ra bitartean, Jose Mari Sasieta donostiarraren eskultura erakusketa ikusgai egongo da Kultura Etxeko aretoan. Eskultore honen irudiak figuratiboak dira gehienak eta erabiltzen dituen materialak burdina, igeltsua, porlana eta antzekoak dira, imajinario handiko kreazioak lortzen dituelarik. Orduetgia: ategunetan 19:00-21:00 eta jaiegunak 12:00-14:00.

● Etxeberria peñaren aurkezpena

Elgoibarren sortu berria den Etxeberria futbolari elgoibartarraren peñaren aurkezpena egingo da datorren asteartean, hilak 8. Aurkezpen ekitaldian Joseba Etxeberria jokalaria oroigarri bat emango zaio eta segidan Herri Irratiko kirol kazetaria den Jose Irigorrik parte hartuko du. Ekitaldira gonbidatuta daude Luis Fernandez eta Iribar, besteak beste. Gaur egun 57 bazkide ditu peña honek. Aurkezpenaren ostean luntxa egongo da.

● Galiziara txangoa Jubilatuen Etxearekin

Jubilatuen Etxeak Galiziako Rias Baixas-era zazpi eguneko irteera antolatu du hilaren 20tik 27ra bitartean. Bidaia autobusean egingo dute eta sei gau hotelean igaroko. Egonaldian zehar irteerak egingo dira eta txangoaren zenbatekoa 18.700 pta.koa da. Informazioa eskuratzeko edo izena emateko Jubilatuen Etxera zuzendu goizeko 10:30etatik 12etara bitartean.

● Zazpikiren oharra

Zazpiki Irratiak martxoaren 29rako egin zuen bileraren deialdiaren data aldatu egin dela jakinarazi nahi du. Bilera, beraz, hilaren 5ean, larunbata, izango da goizeko 11:30etan Zazpikiren ganbaran.

● Odol Emaileen urteko batzarra

Hil honen 27an urteko Batzar Nagusia egingo du Odol Emaileen Elkarteak Eibarren Euskadiko Kutzaren laguntzaz. Egun horretarako, meza, kalejira, bazkaria, opari banaketa eta beste-lako ekintzak antolatu dira. Bazkaria Unibertsitate Laboralean izango da eta Hotel Arratekoek prestatuko dute. Jaira joan nahi dutenek Ramon Maiztegiarekin harremanetan jar daitezke 74 11 90 zenbakira deituta. Bazkariaren zenbatekoa 2.500 pta.koa da. Gogoratu halaber, gaurko, hilak 4, odola emateko deialdia egin dagoela arratsaldeko 6:30etatik 8:30etara bitartean Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan

● Ekekei antzetzaldearen estreinaldia

Ekekei antzetzaldeak "Fumantxu Gernikako arbolaren gerizpean" izenburuko lana aurkeztuko du datorren ostiralean, hilak 11, Elgoibarko Izarra Kutur Elkarteak antolatutako ekitaldian. Antzezleak Izaskun Arozena, Mikel Cornejo, Joxe Martin Urrutia, Igor Odriozola eta Mikel Osoro dira. Saioa gaueko 22:30etan hasiko da Herriko Antzokian.



ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Jafar Panahi
Antzezleak: A. Mohammadkhani, M. Kalifi, F. Sadr Orfani.

El globo blanco (Iran-1995)

Iraneko zinea erabat ezezaguna da men-debaldeko gizartean. Medio gutxiarekin egindako zinea da baina ideia, imajinario, gidoiaren egituraketa eta erabiltzen duten tonu poetiko eta majikoak aise betetzen du gabezia hori. Istorioa kolorezko arraintxo bat erosi nahi eta amak emandako dirua galtzen duen neskatu bat eta honen anaiaren inguruan egituratzen da.

T X A N - D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
5	Zabaleta*	Zabaleta
6	Zabaleta*	Zabaleta
7	Yudego	Yudego
8	Ormazabal	Ormazabal
9	Bidasolo	Anduaga
10	Yudego	Zabaleta
11	Etxeberria	Anduaga

*(eguerdiko 2ak arte)

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Errepideko bizikleta bat saltzen da. Orbea etxekoa. Prezioa 15.000 pta. ☎ 74 11 29
- ◆ Vespa motorra salgai. 200 cc. Egoera onean. ☎ 74 24 42
- ◆ Egora onean dagoen piano bat erosiko nuke. 76 56 78 (Goizeko 10etatik 12etara)
- ◆ Suzuki Samurai SS-AF salgai. Egoera normalean. ☎ 907-24 29 25/74 31 81
- ◆ BX turbo diesel bat salgai. Egoera onean. ☎ 74 40 77 (20:00-22:00, Fermin)
- ◆ Buzeatzeko traje bat saltzen dut. Bi aldiz forratua, 7 mm-takoa eta "Mares" etxekoa. ☎ 74 36 91

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Kamarera bat behar dugu jangelarako Plazentzian. Esperientzia eskatzen da eta euskalduna bada hobe. Curruculum-ak bidali **130 postakutxatilara**. Soraluz
- ◆ Garbiketa produktu berriak inportatzen dituen enpresak **banatzaileak** behar ditu Gipuzkoan zuzeneko salmentan aritzeko. Komisio garrantzitsuak. Interesatuak **GORA IMPORT, Madrid etorbidia 21, 4-A, 2011 Donostiara** zuzendu.
- ◆ DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitateak **amatasun-baja bat ordetzatzeko administrari** bat behar du. Deialdia arautuko duten oinarriak interesatuz gero, hurrengo tokietan jaso daitezke **apirilaren 11tik 16ra** bitartean: **Elgoibar: Nafarroa Plaza, 2. Deba: Ifar kalea, 12 behea eta Murtriko: Txurruka plaza, 1.**

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). ☎ 75 26 75 Mari Karmen
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ☎ 74 06 09 Marisabel
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependientza bezala. ☎ 74 22 78
- ◆ Umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 74 28 43

Etxebizitzak

- ◆ Apartamentua salgai Deban. ☎ 74 12 04 (Gauko 8etatik 10etara)
- ◆ Etxebizitza saltzen dut Eulogio Estarta 3-4 ezkerrean. Hiru logela, komuna eta sukalde-jangela ditu. Prezio interesgarria. ☎ 71 53 71 (9etatik 16etara eta 19etatik 22etara. Manolo).
- ◆ Etxebizitza unifamiliarra saltzen dut. Duplex adosatua. 40m²-ko sotoa eta 3 fatxada. Prezio interesgarria. ☎ 13 16 83
- ◆ Etxebizitza bat saltzen da Deban. Bista ezinhobeak eta etorkizun handiko lekua. ☎ 19 19 22
- ◆ Pisia daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ◆ Haurrik gabeko senar-emazteak pisua behar du alogeran. Ahal bada altzariek. ☎ 75 62 18

Garajeak

- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10

Bestelakoak

- ◆ Norbaitek **kirol-boltsa** urdin bat ahaztu zuen **BARREN**en Aste Santuko oporren aurretik. Etor dadila bila.
- ◆ **Mendiko bota** bat galdu dut. Goretex arrosa, lila eta berde kolorekoa da. ☎ 74 38 45 Matilde.
- ◆ **1970. urtean jaio** eta **Ikastolan ibilitako ikasleen afaria** antolatu da. Afaria bihar, hilak 5, izango da. **Malapen** geratu gara **7,30etan** edo, bestela, **9,30etan Txarridu** nan.
- ◆ **Keroseno estufa** erosiko nuke. ☎ 74 04 59 (gauko)
- ◆ **Egunero Bilbora** goizean goiz kotxez doan norbaitekin **joan eta gastuak konpartituko** nituzke. ☎ 74 08 78 Maite.
- ◆ **Silikonazko erroberak** eta erabili gabe dauden **39-40 zenbakiko patinak** salgai. Oso merke. ☎ 74 14 54 (gauko 9etatik aurrera).
- ◆ Hozkailu bat hartuko luke Caritas-ek. ☎ 74 15 09/74 12 57
- ◆ Hilaren 14an, ostirala, Casio markako erloju bat galdu nuen Mekanika inguruan. ☎ 74 38 41

Agurrak

- ◆ **Eskerrak** eman nahi dizkiogu **Txankakua elkarteari** Kanariar irlertara bidaiari egiteko aukera eman digutelako eta benetan ondo pasatu dugulako. Nerea eta Alazne.
- ◆ **Eskerrak Gurutze Gorrikoei**, eta batez ere **Urkori**, eskaini didazuen laguntzagatik.
- ◆ Zorionak **Ainhoa Mateo** eta **Maria Aldazabali** martxoaren 28an eta apirilaren 4an 15 urte bete zituztelako. Kuadrilakoen partez.
- ◆ Zorionak **Dionisio Estevezi** eta **Sara Estevezi** martxoaren 26 eta 29an urteak bete zituztelako. Familiaren partez.
- ◆ Supersorionak **Iban Muruari** igandean bere urtebetzea delako. 5. mailako guztien eta bere familia osoaren partez, **ZORIONAK!!!!** eta 11 belarrikada haundi!
- ◆ Martxoaren 21 eta 31n urteak bete zituzten **Mikel** eta **Martini ZORIONAK** familiaren partez.
- ◆ Apirilaren 1, 3 eta 4an urteak bete zituzten **Eli**, **Eire** eta **Aneri ZORIONAK!** 6. mailakoen partez.

- ◆ Zorionak ilaren 31n 5 urte bete zituen **Unai Zubiaurreri** Ametsen partez.
- ◆ Zorionak martxoaren 27an urteak bete zituen **Juan Bautista Izagirreri** bere familiaren partez.
- ◆ **Ainhoa Zapata Ferrerori** zorionak martxoaren 30ean 9 urte bete zituelako guraso eta Iban eta Iker anaien partez.

- ◆ Zorionak eta musu haundi bat **Leire Melgosari** martxoaren 26an urte bat bete zuelako. Guraso eta familiakoen partez.

- ◆ **Naiara Landa Perezi** zorionak apirilaren 9an 18 urte beteko dituelako. Elgoibarko sendiaren partez.

- ◆ Zorionak **Sergio Arroyori** hilaren 6an 2 urte betetzen dituelako. Guraso, Mikel, Jabier, Andres, Marivi eta aiton-amonen partez.


- ◆ Zorionak **Xabier Arrizabalagari** martxoaren 30ean 26 urte bete zituelako. Bere etxeko guztien partez.

Agurrak

- ◆ **Iñigo Garay Landari** zorionak apirilaren 3an 8 urte bete zituelako. Etxekoena, Nadia eta Noraren partez.



- ◆ Zorionak **Ainhoa Agirre**ri hilaren 7an lau urte beteko dituelako gurasoen partez, baita ere, amama Beñoniari Ainhoaren partez.



- ◆ **Ane Gorritiri** zorionak martxoaren 26an 5 urte bete zituelako. Bere osaba-izeba, lehengusina, Nadia eta Noraren partez.




- ◆ Zorionak **Hasierreri** martxoaren 28an 7 urte bete zituelako baita amama Pepitari ere martxoaren 19an urteak bete zituelako.




- ◆ Zorionak **Inmaculada Bilbao**ri martxoaren 27an urteak bete zituelako. Familia guztiaren partez.



- ◆ Zorionak! Belarritik tirakada haundi bat **Izaskun Landari** gaur 32 urte bete dituelako. Etxekoena eta bereziki Inñigoren partez.



- ◆ Zorionak **Jose Luis Egañari** apirilaren 6an urteak beteko dituelako bere hiloba Maria eta Andoni eta familia osoaren partez.



- ◆ Zorionak **Conchi Calderoni** bere senar eta semeen partez.

Altus Walker 70
14.995 pta.



Vilapunt Palermo 50 L
5.750 pta.




CASA ASTIGARRAGA



Errosario, 16-18
20870 Elgoibar
Tel: 74 32 68

MARKA ONENAK

PREZIO ONENETAN

%10eko beherapena federatua edo
Morkaiko M. E. ko kidea bazara



Boreal Namib
18.500 pta.



San Marco STLVI
15.995 pta.

Bagenekien lortuko
zenutela.



ZORIONAK!

- Mendia
- Eskalada
- Espeleologia
- Kainoiak
- Liburuak
- Mapak


Federatuek %10eko beherapena

DRU

Isasi, 23 — 20870 ELGOIBAR
Tel: 20 14 12

EKEKEI

Antzerki
Taldea



Zer
gertatuko
litzateke
Euskal
Herria
ispilu ahur
baten
aurrean
jarriko
bagenu?

ESTREINALDIA

FUMANTXU

Gernikako Arbolaren gerizpean

Herriko Antzokian
Apirilak 11, ostirala, gauek



Foru



Elgoibarko Izarra K.



Elgoibarko